

BILBON ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO PROGRAMAREKIN
(MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2022) BAT EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2022 programarekin bat egiteko, establezimenduek inprimaki elektroniko bat (www.bonobilbao.eus) bete beharko dute; datu guztiak ondo bete eta honako hau erantsi beharko diote:

- Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta, zehazki, deialdi honetan jasotako jarduerarekin zerikusia duen epigrafean alta emanda dagoela egiaztatze dokumentua.
- Kontu korrante bat bere izenean duela egiaztatzen duen dokumentua.
- Establezimenduaren irudia.

Bat egiteko eskaera egiten duen establezimenduak edo entitateak honako **konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:**

- Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK 2022 programa kudeatzeko ezarritako baldintzak jakin eta onartzen ditu.
- Egunean ditu Zerga Ogasunarekiko, Bilboko Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- Programarekin bat egingo du, eta bertan ezarritako konpromisoak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du.
- Kanpaina egitea eragozten dien edozein gorabeheraren berri emateko konpromisoa hartzen du
- Kanpaina egitea eragozten dien edozein gorabeheraren berri emateko konpromisoa hartzen dutela Programarekin bat egiterakoan, bertan parte hartuko duela joko da, salbu eta programa amaitu baino lehen baja eman nahi duela idatziz adierazten bada.
- Kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartzen du.
- Bonuak iruzurrez ez erabiltzeko konpromisoa hartzen du
- Konpromisoa hartzen duela bonuak iruzurrez ez erabiltzeko Programaren identifikazio-materiala establezimenduan ondo ikusten den leku batean jartzeko konpromisoa hartzen du.
- Kontsumitzaileei ez die inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBOKO BONUAREN balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada.